

INDUSKETA ARKEOLOGIKOA SAN ILDEFONSO EDO GUSTALDAPA ASFALTOEN FABRIKA ZAHARREAN

Lekua:	Arraia – Maeztu (Araba)
Modalitatea:	Arkeologia eta ondare berreskuratzea
Helburua:	Esku-hartze arkeologikoa San Ildefonsoko edo Gustaldaparako asfalto-lantegian, Korres udal-mugar-tean dago.
Egunak:	Uztailaren 30etik abuztuaren 13ra
Adina:	18 – 26 urte
Plaza-Kopurua:	20
Mota:	Estatukoa
Hizkuntza:	Gaztelania eta euskara

Arraia-Maeztu udal-erri handia Arabako Mendialdea Kuadrillaren baitan dago. Berron (Arraia Harana) eta Musitu (Laminoria Harana) erreken inguruko hainbat haranek osatzen dute udal-erri handi hau. Iturrieta eta Vitoria mendiez inguratuta dago.



Izki Parke Naturalaren erdian, mendiez eta haitzez inguratuta, eta haran txiki batean, Korres dago. Udal-mugarte horretan dago San Ildefonsoko edo Gustaldapako asfaltoen lantegia. XIX. mendean hasi zen asfaltoen lantegiko jarduerak. 1.858tik 1.913ra bitartean egon zen martxan. 55 urte horietan, estatuko asfalto-ustategi nagusia eta handiena izan zen, meategi-erakinez eta ogiaren eta asfaltozko harlauzen lantegiez osatuta: 8 eraikin ditu, baita hainbat patio ere (pasabideko leku irekiak).

XIX. mendeko industria-ondarea lehengoratzeko proiektu honen bidez, Arraia-Maeztuko Udalak jarduketak jakin bat egin nahi du udal-errian, herriko nortasuna sendotzeko katalizatzaile eta dinamizatzaile gisa.

Informazio gehiago:

Arraia-Maeztuko Udala: <http://www.arraia-maeztu.org/index.php?ididioma=2>

AUZOLANDEGIAREN DESKRIBAPENA

Indusketa arkeologiko honetan aurkitutako egiturak sendotu nahi dira zaharberritze-teknikak erabiliz. Horretarako, arkeologo batek zuzenduko ditu lanak.

Auzolandegi honen bidez, industria-multzoen hainbat eremu lehengoratu eta balioa eman nahi zaie seinale erraz jakin batzuen bidez, lantegiari eta lehengoratutako zonei buruzko azalpenak emateko.



Ekintza hauek gauzatuko dira:

- Indusketa arkeologikoa 1-2 gela handitan (30 m2 ingurukoa da bakoitza) hondakinak kentzeko. Horretarako, beharrezkoak diren datuak hartu dira.
- Aurkitutako egiturak sendotzea. Zaharberritzeko teknikak erabiliz (iturgintza-lanak).
- Lurzoruak estaltzea, kontserbatu ahal izateko.
- Seinaleak. Kartel bat egitea eraikinaren sarreran jartzeko, bisitan zehar zehaztapenak, azalpenak eta laguntza emateko.



ANIMAZIO JARDUERAK

Animazio taldeak hainbat ekintza proposatuko ditu, auzolandegiko partaideen eta auzolandegia hartuko duen komunitatearen arteko harremanak sendotzeko eta lanak garatuko diren ingurunea hobeto ezagutzeko. Bestalde, Euskadiko kultura eta ohiturak ezagutzeko lagungarriak izango dira.

Txangoak, bisita kulturalak Euskadiko hiri nagusietara eta kostaldera, kirol-ekintzak, jolasak... antolatuko dira. Besteak beste, Erdi Aroko hiribilduetatik ibilbideak, irteerak Izkiko Parke Naturalera, bisita Korreseko parke naturalaren behatoki astronomikora edota golfaren oinarritzko ezaugarriak ezagutzeko aukera Izki Golf zelaian.

Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiek parte hartuko dute.

Programa aurrerago zehaztuko da programa. Animazio taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak.

ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- | | |
|---|--------------------------------|
| ➤ Lo-zakua (ez dago izararik) | ➤ Kapela eguzkitarako |
| ➤ Burkoa (behar baduzu) | ➤ Eguzkitako krema |
| ➤ Garbitasun pertsonaleko artikuluak | ➤ Eguzkitako betaurrekoak |
| ➤ Dutxarako eta igerilekurako toallak | ➤ Bainujantzia |
| ➤ Berokiak eta euritako arropak | ➤ Txankletak |
| ➤ Mendiko oinetakoak eta kirola egitekoak | ➤ Motxila txikia txangoetarako |

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO AGIRIAK

- NAN edo atzerritzar-txartela edo pasaporteak.
- Osasun-txartel indibiduala

AUZOLANDEGIAREN KOKAPENA ETA OSTATUA

Auzolandegiaren kokapena: San Ildefonsoko edo Gustaldapako asfaltoen lantegian, Korres udal-mugartean dago (Maeztutik 5 km-tara).

Maeztu Gasteiz hiriaren hego-ekialdetik 25 kilometrotara dago, lurraldearen zentroan, Arabako Mendialdean.

Ostatua: Maeztuko udal-ikastetxean hartuko dute ostatu auzolandegiko parte-hartzaileek, Frontoi kalea, z/g, 1. poligonoa, partzela 51 (Maeztu).

Besteak beste, honako instalazio hauek ditu:

- Bi egongela
- Jolas-jarduerak garatzeko erabilera anitzeko gela
- Materiala gordetzeko biltegia
- Sukaldea eta jangela
- Komunak
- Dutzak (ondoko eraikinean kokatuak)

AUZOLANDEGIAN HASTEAK

Auzolandegiaren lehen egunean, **18:00etan, Maeztuko Udaletxean**; Estacion Kalea, 13.

Ordu horretarako iritsi ezin denak (betiere, justifikatutako arrazoi bat dela medio), aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

NOLA HELDU AUZOLANDEGIRA

[Arraia-Maezturen \(Araba\) kokapen-mapa](#)

Arabako Mendialdea Arabako hego-ekialdean kokatzen da, Gasteiztik ordu erdi ingurura.

Arabako Mendialdera gerturatzea gauza erraza da. Arabako hiriburutik, Vitoria-Gasteiztik, Arabako mendatetik iritsi daiteke (A-2124), Azazetatik (A-132) eta Opakuatik (A-2128), nahi den bidea aukeratuta.

Maeztutik inguruko probintzietako hiriburuetara dagoen distantzia:

- Vitoria-Gasteiz 27 km.
- Bilbao 89 km.
- Donostia-San Sebastián 116 km.
- Iruñea 84 km.
- Logroño 48 km.

AUTOBUSA

Pinedo Autobus konpainia, S.A., Telefonoa: 945 28 27 87

Gasteiz-Maeztu-Santikurutze Kanpezu-Lizarra-Calahorra

Gasteiz-Bernedo

Linea erregularrak:

- Linea 31: - Gasteiz - Kontrasta - Lizarra
- Linea 30A: Vitoria - Estella
- Linea 30B: - Gasteiz - Kontrasta - Lizarra

AUZOLANDEGIAREN AMAIERA

Auzolandegia azken egunean amaituko da, gosaria hartu eta gero, goizeko 09:00ak eta 10:00ak bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak partaide bakoitzari istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguruia egingo dio.

Hala ere, gazte bakoitzak bere **osasun-txartel indibiduala** ekarri beharko du auzolandegira.

HARREMANETARAKO TELEFONOAK ETA E-POSTA

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Tel.: **945 01 95 01 – 945 01 95 36**
- E-posta: gazteria-auzolandegiak@euskadi.eus

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehen, auzolandegietako arauak ezagutzea komeni da. Ikusi www.gazteukera.euskadi.eus webgunean (Auzolandegiak – Ezaugarriak, kuotak eta arauak).

PLAZARI UKO EGITEA ETA KUOTA ITZULTZEKO ESKATZEA

Informazio guztia www.gazteukera.euskadi.eus webgunean dago (ikusi Auzolandegiak- Plazari uko egitea eta ordaindutako kuotaren itzulketa eskatzea izeneko atalean).